

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Covid-19aren ondorioz diru sarrerak murriztu zaizkien enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei zuzeneko dirulaguntzak emateko programa, osasun krisiak izan dituen ondorio negatiboak arintzeko eta ekonomia suspertzeko

Amurrioko Udalak, abuztuaren 6an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, enpresa txiki eta ertainentzako eta autonomoentzako zuzeneko dirulaguntzen programa hau onartu zuen, horien diru sarrerak murriztu egin baitziren Covid-19aren ondorioz.

Amurrioko Udalak beharrezkotzat jo du Amurrioko ekonomia suspertzeko dirulaguntzak ematea. Covid-19aren eraginez 2020ko martxoaren 14an alarma egoera deklaratzaren ondorioz eta horrek enpresa txikietan eta autonomoen erregimen berezian inskribatutako pertsonengan izan dituen ondorio ekonomikoak direla eta, beharrezkotzat jo da diru sarreraren murrizketa hein txiki batean arindu dezakeen laguntza ekonomiko bat onestea.

Laguntza ekonomiko horiek zuzeneko laguntza gisa izapidetuko dira, premiazkoak direlako eta premiaz ebatzi behar direlako, bai eta onuradunei ematen zaizkien zenbatekoak lehenbailehen ordaindu behar direlako ere, jarduera ekonomikoei eutsi ahal izan diezaieten. Covid-19ak sortutako egoera ekonomikoak autonomoen eta enpresa txikien diru sarrerak murriztea eragin du, bai eta etorkizunarekiko ziurgabetasun handia ere; beraz, beharrezkoa da likidezia emango dieten berehalako neurriak antolatzea.

1. Xedea eta aplikazio eremua. Oinarri hauen xedea da dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Laguntza horien helburua da udalerrian jarduera ekonomiko bat egiten ari diren edo egiten ari ziren enpresa txikiei eta autonomoen araubide berezian izena emanda dauden pertsonen laguntza ekonomikoa ematea, baldin eta diru sarrerak murriztu egin bazaizkie Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira laguntza ekonomiko horiek.

2. Onuradunen betekizunak

Baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak izan ahalko dira laguntza hauen onuradun:

a) Amurrioko udalerrian gaur egun jarduera ekonomikoren bat egiten ari direnak edo alarma egoera deklaratu zen unean jarduera ekonomikoren bat egiten ari zirenak, baldin eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta emanda badaude (edo 2020ko martxoaren 14an bazeuden) epigrafe hauetakoren batean:

– 1. atala (enpresa jardueretarako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafeak): 4. dibisioa (beste manufaktura industria batzuk), 5. dibisioa (eraikuntza), 6. dibisioa (merkataritza, jatetxeak eta ostatua, konponketak), 7. dibisioa (garraioa eta komunikazioak), 8. dibisioa (finantza erakundeak, aseguruak, enpresei emandako zerbitzuak eta alokairuak) eta 9. dibisioa (beste zerbitzu batzuk)

– 2. atala (jarduera profesionaletarako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafeak)

– 3. atala (jarduera artistikoetarako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafeak)

b) Gaur egun jarduera ekonomikoren bat egiten ari diren edo alarma egoera deklaratu zen unean jarduera ekonomikoren bat egiten ari ziren pertsona fisikoen kasuan, Amurrioko

udalerrian erroldatuta egon beharko dute edo Amurrioko udalerrian jarduera ekonomikoari lotutako establezimendu bat izan beharko dute. Pertsona juridikoen kasuan, egoitza soziala Amurrion egon beharko da.

c) 5 langile baino gehiago ez izatea, jardueraren titularra barne.

d) Azaldutako baldintzaren bat betetzen ez duten enpresaren batek ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetza edo lotura ez izatea.

e) Egunean izatea zerga arloko administrazio publikoekiko betebeharrak, bai eta gizarte segurantzarekikoak ere.

f) Amurrioko Udalarekin eta haren mendeko erakundeekin kontraturik indarrean ez izatea.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

3.1. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa garatutako enpresa jardueraren arabera izango da, sailkapen honen arabera:

EPIGRAFEA: JARDUERA EKONOMIKOEN GAINKO ZERGA	EMANGO DEN GEHIENKO ZENBATEKOA
A kategoria 1. atala: 6. dibisioa (merkataritza, jatetxeak eta ostatua, konponketak)	300 euro
B kategoria 1. atala: 4. dibisioa (beste manufaktura industria batzuk), 5. dibisioa (eraikuntza), 7. dibisioa (garraioa eta komunikazioak), 8. dibisioa (finantza erakundeak, aseguruak, enpresei emandako zerbitzuak eta alokairuak) eta 9. dibisioa (beste zerbitzu batzuk) 2. atala: jarduera profesionalak 3. atala: jarduera artistikoak Jarduerarako establezimendurik ez bada	400 euro
C kategoria 1. atala: 4. dibisioa (beste manufaktura industria batzuk), 5. dibisioa (eraikuntza), 7. dibisioa (garraioa eta komunikazioak), 8. dibisioa (finantza erakundeak, aseguruak, enpresei emandako zerbitzuak eta alokairuak) eta 9. dibisioa (beste zerbitzu batzuk) 2. atala: jarduera profesionalak 3. atala: jarduera artistikoak Jarduerarako establezimendurik bada	500 euro

Epe barruan aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, diruz laguntzeko kopuruek guztira gairiditzen badute dirulaguntza horiek emateko dagoen aurrekontu esleipena, bana-banako gehieneko zenbatekoak behar besteko ehunekoan murriztuko dira, aipatutako aurrekontu esleipenarekin haiek estali ahal izateko.

Kategoria batean aurrekontua geratzen bada erabilgarri, beste bietako edozeinetarako erabili ahal izango da, eskaera gehien dituen kategoriatik hasita.

4. Onuradunen betebeharrak

Laguntza hauen onuradunen betebeharrak hauek izango dira:

- Udalaren egiaztatze lanak eta udalaren kontu hartzailetzaren finantza kontrola eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan xedatutakoak onartzea.

- Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu bada, udalari aldaketaren berri ematea.

- Ekonomia Sustapenaren Sailari dirulaguntza eskaera ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkoa den zernahi informazio edo agiri osagarri ematea. Udalak, 2020ko ekitaldia amaitu ondoren, aurreko ekitaldiarekin alderatuta izandako diru sarreraren murrizketa egiaztatzen duen dokumentazioa eskatu ahal izango du.

- Ebazpen proposamena eman aurretik, zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketa egunean duela egiaztatzea.

5. Aurrekontu baliabideak

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak, guztira 100.000 eurokoak, "Tokiko ekonomia suspertzeko laguntzak" izeneko 20.1.20.1.433.01.471 partidaren kontura finantzatuko dira. Guztizko zenbateko horretatik 30.000,00 euro A kategoriarako izango dira, 30.000,00 euro B kategoriarako eta 40.000,00 euro C kategoriarako.

6. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) xede bererako emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin.

Laguntza hauek Europako Batzordearen minimis laguntzei buruzko 1407/2013 (EB) Erregelamenduaren aplikazio eremuan sartzan diren laguntzekin metatu daitezke (DO L 352 de 24.12.2013).

7. Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte interesdunek:

a) Eskaera orria eta zinpeko adierazpena: I. eranskina.

b) Eskatzailearen nortasun agiri nazionalaren, atzerritarraren identifikazio zenbakiaren edo indarrean dagoen pasaportearen fotokopia, pertsona fisikoen kasuan. Sozietate zibilen eta ondasun erkidegoen kasuan, estatutuen eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren kopia. Pertsona juridikoen kasuan, identifikazio fiskaleko zenbakia eta enpresaren eraketa eskriturak.

c) Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren alten eta bajen ziurtagiria.

d) Alta egoeran dauden langileen txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, langile kopurua egiaztatzeko.

e) Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiri gaurkotua.

f) Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiri gaurkotua.

g) Hirugarrenen alta, finantza erakundeak behar bezala zigilatua, izenpetua eta adostua: II. eranskina.

8. Eskaerak aurkeztea

Eskaerak, nahitaezko agiriekin batera, Amurrioko udal erregistro orokorrean (Juan Urrutia plaza, z.g.) aurkeztu behar dira. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, ALHAOn argitaratzen denetik 2020ko irailaren 30era bitartean.

9. Akatsak zuzentzea

Eskaerak ez badituzte betetzen oinarri hauetan eskatutako betekizunak, edo nahitaezko agiriak aurkezten ez badira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunei dei egingo zaie, 10 egun baliioduneko epean akatsak zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten. Halaber, jakinaraziko zaie ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, 21. artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

10. Emateko prozedura

Ekonomia Sustapenaren Sailaren ardura da oinarri hauetan xedatutako laguntzak kudeatzea, eta, beraz, hark aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztutako eskaerak. Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du dirulaguntzak eman edo ukatu, ekonomia sustatzeko teknikariak proposamena egin ondoren.

11. Laguntzak ordaintzea

Ordainketa bakar baten bidez ordainduko dira laguntzak.

12. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik badago, hura emateko ebazpenak aldatu ahalko dira. Edonola ere, aldaketa horrek oinarriotan ezarritako baldintzak bete beharko ditu beti.

13. Kontrola, ebaluazioa eta ikuskatzea

Amurrioko Udalak egoki deritzen kontrol eta ebaluazio jardunak egin ahal izango ditu, Ekonomia Sustapenaren Sailaren bidez, laguntzak xedatueterako erabiltzen direla egiaztatzeko, eta onuraduna behartuta dago eskatzen zaion informazio osagarri oro aurkeztera.

14. Laguntzak itzultzea

Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira eta dirulaguntza ordaindu zenetik dagozkion legezko interesak eskatuko dira, baldin eta onuradunek urratu egiten badituzte oinarri hauetan, esleipenaren ebazpenean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak, hori guztia arau hauste horren ondorioz bidezkoak diren ekintzak gorabehera. Itzultzen diren zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera izango dira, legezko ondorioetarako. Kudeaketa, kontrol edo ikuskaritza eginkizunak betetzean ondorioztatzen bada dirulaguntza oker lortu edo erabili dela, espedientean jasoko da eta, behar izanez gero, kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

15. Dirua itzultzeko prozedura

Dirulaguntza eman zuen organoak izango du eskumena espedientea hasi eta, hala iritiz gero, onuradunak dirua itzuli behar duela ebazteko. Prozedura ofizioz edo organo eskudunak edo interesdunak berak eskatuta hasi ahal izango da. Horren inguruko ebazpena eman ondoren, udalak dirulaguntzaren onuradunari jakinaraziko dio dirua itzultzeko prozedura hasi dela, bai eta hartarako arrazoien zergatia ere, eta hamabost egun emango dizkio bidezko deritzen alegazioak egin eta egoki jotzen dituen agiriak eta zuribideak aurkezteko.

Alegazioak jasotakoan edo hartarako emandako epea alegaziorik gabe igarotakoan, ebazpen arrazoitua emango da. Ebatzitakoaren aurka zer errekurtso aurkeztea duen ere jakinaraziko zaio ebazpen horretan interesdunari. Hamabi hilabete izango dira, gehienez, dirua itzultzeko prozedura ebazteko. Ebazpenak baldintzak ez direla bete ebazten badu, dirulaguntza jasotzeko eskubi-dearen galera ekarriko du, bai eta, ondorioz, bidegabe jasotako zenbatekoak udal diruzaintzara itzultzeko beharra ere. Horretarako, bi hilabete izango dira jakinarazpena jasotzen denetik aurrera. Epe horretan ordainduz gero, borondatezko epean ordaindu dela joko da. Epe horretan ordaintzen ez bada, premiamendu prozedura abiatuko da, aplikatzekoa den araudiarekin bat etorritik. Dirua itzultzeko prozedura administrazio arau hauste baten ondorio bada, organo eskudunari jakinaraziko zaio, aplikatzekoa den zehapen prozedura abia dezan.

16. Ordezko araubidea

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta haren garapen araudia aplikatuko dira, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea ere.

I. Eranskina: ESKAERA ORRIA ETA ZINPEKO ADIERAZPENA

..... andreak/jaunak, zeinak NAN zenbakia/IFZ baitu, zeinaren helbidea hau baita:, eta zeinaren harremanetarako datuak hauek baitira:

telefonoa: eta posta elektronikoa:

ADIERAZTEN DU

1. Udalerrian ekonomia suspertzeko enpresa txikiei eta autonomoei dirulaguntzak emateko udal programa arautzen duten oinarrien berri duela eta haiek onartzen dituela.
2. Alarma egoera deklaratzearen ondorioz diru sarrerak murriztu zaizkiola.
3. Onuradunentzako oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen dituela.
4. Ez diola eragiten dirulaguntza publikoa itzularaztera behartzen duen inongo prozedurak edo zehapenek.

ETA ESKATZEN DU

..... dirulaguntza, ALHAOn argitaratutako oinarriekin bat etorritz.

Eta behar den tokian halaxe ager dadin, sinatu egiten du.

Amurrio, 2020ko ren (a)